

Miriam Tirado

# LEHOIAREN BOTEREA

Mugak jartzen ikasteko  
ipuina

Ilustrazioak:  
Marina Bruno

erein

**LEHOIAREN  
BOTEREA**



Obra honen edozein erreproduzio modu, banaketa, komunikazio publiko edo aldaketa egiteko, nahitaezkoa da jabeen baimena, legeak aurrez ikusitako salbuespenezko kasuetan salbu.

Obra honen zatiren bat fotokopiatu edo eskaneatu nahi baduzu, jo CEDROra (Centro Español de Derechos Reprográficos, [www.conlicencia.com](http://www.conlicencia.com); 91 702 19 70 / 93 272 04 47).

---

*Liburu honek Eusko Jaurlaritzako Kultura eta Hizkuntza Politika Sailaren diru-laguntza jaso du.*

*1. argitalpena: 2026ko ekainean.*

Jatorrizko izenburua:

*El poder del lleó*

Azalaren diseinua:

Penguin Random House Grupo Editorial | Paola Timonet

Maketazioa:

Erein argitaletxea | Asier Beltza

Ilustrazioak:

Marina Bruno

Itzulpena: Aintzane Atela, Rosetta T. Z.

© testuarena: 2025, Míriam Tirado

© Ilustrazioena: 2025, Marina Bruno

© 2025, Penguin Random House Grupo Editorial

Travessera de Gràcia, 47-49. 08021 Barcelona

© Argitalpen honena: 2026, Erein argitaletxea. 20018 Donostia

ISBN: 978-84-1093-114-5

L.G.: D 417-2026

EREIN Argitaletxea  
Tolosa Etorbidea 107  
20018 Donostia  
T 943 218 300  
[erein@erein.eus](mailto:erein@erein.eus)  
[www.erein.eus](http://www.erein.eus)

Inprimatzailea: Gertu inprimategia  
Zubillaga industrialdea, 9  
20569 Oñati, Gipuzkoa  
T 943 783 309  
[gertugrafika@gmail.com](mailto:gertugrafika@gmail.com)  
[www.gertu.net](http://www.gertu.net)

**Miriam Tirado**

**LEHOIAREN  
BOTEREA**

**Mugak jartzen ikasteko ipuina**

Ilustrazioak:  
**Marina Bruno**

Itzulpena:  
Aintzane Atela

erein

*Oraindik lehoiaren boterea aurkitu ez duten haurrentzat.  
Aurkituko duzue, ez izan zalantzarik!*



SAULEk gaztaina koloreko ilea zuen,  
eta orinak sudurraren inguruan.  
**INORK ULERTZEN EZ ZUEN** zerbait  
gertatzen zitzaion Sauli.





Eskolan zegoela, Alaia bere lagunak estu-estu besarkatzen zuenean, min ematen zion, baina Saul **EZ ZEN KEXATZEN.**

Beste ikaskide batek liburua kentzen zionean edo bultzatzen zuenean, Saulek **EZ ZUEN TUTIK ESATEN ETA EZ ZUEN EZER EGITEN.**

Ez zuen batere gustuko, baina **EZ AURRERA EZ ATZERA** gelditzen zen, eta ez zitzaion hitzik ateratzen.



Irakaslea gertatutakoaz jabetzen zenean, Saulengana hurbildu, eta honela esaten zion:

**«SAUL, EGITEN DIZUTENA GUSTATZEN EZ BAZAIZU, ESAN EGIN BEHAR DIEZU».**

Saulek burua makurtzen zuen, eta gurasoak noiz etorriko zain gelditzen zen.



Gurasoei ikasgelan gertatutakoa kontatzen zienean, honela esaten zioten:

**«SAUL, ZEURE BURUA BABESTEN IKASI BEHAR DUZU».**

Baina Saulek ez zien ulertzen zehazki zer esan nahi zuten, eta okerrago sentitzen zen orduan.



Gauza bitxia zen, etxean ez baitzizaion halakorik gertatzen.

Arreba bat zuen, bera baino hiru urte zaharragoa, Zuriñe.

Hura zirika hasten zitzaionean, **SAUL HASERRETU EGITEN ZEN, GARRASI EGITEN ZUEN, ETA, ZENBAITETAN, BUELTAN ITZULTZEN ZION ZIRIA.**







Eta, halakoetan, **BIEKIN HASERRETZEN ZIREN** gurasoak:  
Zuriñerekin, Sauli zirika egiteagatik, eta Saulekin,  
Zuriñeri itzultzen ziolako.

—Egongo al zarete geldi? Ez elkar zirikatzen ibili eta ez elkar jo,  
ez dugu onartuko! **ETXEAN, ELKAR ERRESPETATU BEHAR DUGU.**

Baina, hala ere, handik gutxira, **BERRIRO ERE GAUZA BERA  
GERTATZEN ZEN**, eta berriro entzuten ziren garrasiak eta negarrak,  
eta gurasoak haserretu egiten ziren.

